

KONTZIENTZIA ETA ADIERAZPIDE KULTURALERAKO KONPETENTZIA (KAKK)

Kontzientzia eta adierazpide kulturalerako konpetentziak berekin dakar ideiak eta esanahia sormenez adierazteko eta kultura desberdinetan komunikatzeko modua ulertzea eta errespetatzea, bai eta hainbat arteren eta beste kultura-adierazpenen bidez ere. Norberaren ideiak ulertzen, garatzen eta adierazten ahalegintzea eskatzen du, bai eta gizarteko kide izatearen zentzua izatea edo gizarteko funtzio bat hainbat modutan eta testuingurutan betetzea ere, eta nortasuna aberastea kulturen arteko elkarrizketaren bidez.

LEHEN HEZKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK... ..

OINARRIZKO HEZKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK...

KAKK1. Edozein garaitako kultura- eta arte-ondarearen funtsezko alderdiak ezagutzen eta errespetatzen ditu, kulturarteko ingurune batean kultura-desberdintasunak eta horiek errespetatzeko beharra ulertuta.	KAKK1. Edozein garaitako ondare kultural eta artistikoaren funtsezko alderdiak ezagutu, kritikoki estimatu, errespetatu eta sustatzen ditu, eta bere nortasuna eraikitzeke kultura- eta arte-aniztasunari datzekion adierazpen-askatasuna eta aberastea baloratzen ditu.
KAKK2. Ondareko arte- eta kultura-adierazpen garrantzitsuenen espezifikotasunak eta intentzioak ezagutu eta horietaz arduratzen da, bere hizkuntza eta elementu teknikoaren bidez, hainbat baliabide eta euskarritan, etengabe aldatzen ari den testuinguru batean.	KAKK2. Gozatu, ezagutu eta aztertu autonomiaz ondareko adierazpen artistiko eta kultural nabarmenenen berezitasunak eta intenzionalitateak, haien hizkuntza eta elementu teknikoaren bidez, edozein bitarteko edo euskarritan.
KAKK3. Bere nortasuna aberasten eta eraikitzen du, ingurunearekin eta gizartearekin elkarreraginez, adierazpen kultural eta artistiko sortzailearen bidez, bere gorputza integratuz eta konpetentzia afektiboak garatuz, besteekiko jarrera ireki eta inklusiboarekin.	KAKK3. Ideiak, iritziak, sentimenduak eta emozioak sormenez eta modu irekian adierazten ditu. Autoestimua, sormena eta pertenezentzia-sena garatzen ditu, adierazpen kultural eta artistikoaren bidez, enpatiaz eta lankidetzazko jarreraz.
KAKK4. Irudikapenak eta arte-adierazpenak sormenez erabiltzen ditu, teknika plastikoak, ikusizkoak, ikus-entzunezkoak, soinuak eta gorputzezkoak erabiliz, proposamen artistiko eta kulturalak sortzeko, lankidetzan.	KAKK4. Interpretazioaren, exekuzioaren, inprobisazioaren eta konposizio musikalararen bidez produktu artistikoak eta kulturalak sortzeko oinarrizko baliabide/euskarri plastikoak, ikus-entzunezkoak, soinuak eta gorputzezkoak ezagutzen, hautatzen eta sormenez erabiltzen ditu. Eskaintzen dizkieten garapen pertsonal, sozial eta ekonomikorako aukerak identifikatzen ditu.